



Jose Antonio
Arkotxa
Martija
Atxukale

1911-1996

BIDeGILEAK

Egilea:

Gorka Aulestia



JOSE ANTONIO ARKOTXA MARTIJA ATXUKALE

(1911-1996)

Euskal

kulturari lotua

Sinesmena, herria, euskara. Hiru hitz horiekin laburbil dezakegu J.A. Arkotxaren bizitza. Antzerki idazle ona, kazetari trebea, eta Euskaltzaindiko kide urgazlea. 1911ko martxoaren 29an Mutrikun sortu, eta 1996ko martxoaren 17an Donostian zendu zen 84 urterekin. Indarrak ahitu arte lanean jarraitu zuen eta bihotzak atsedean hartu zion bere bizitza luze eta oparoaren azken txanpan. «Atxukale» Mutrikuko izen horrekin izan zen ezagutua eta deitua, batez ere herritarren artean; beste goitizenetako bi «Kirol-Zale» eta «Mutriku» izan zituen. Garai hartan,

gaur bezala, Mutriku herri euskaldun peto-petoa zen.

AMAREN ERAGINA

Aurkezpen labur hau egin ondoren, jo dezagun haren bizitzako gorabehera nagusiak gogoraraztera. Mutrikuarrak izan ziren haren gurasoak (Gaspar-Karmen), eta emaztea (Serafina Ituarte); emakume honekin hiru seme-alaba izan zituen. Euskarari eta euskal kulturari zeharo lotuta bizi izan zen beti; hain zuzen, bere amaren ildotik jarraituz,



Mutriku

irakurle gartsu bilakatu zen eta etenik gabeko irakurketaren bidez herri jakituria eskuratu zuen. Amak asko lagunduzion arazo honetan eta haren zaletasun handienetako bat liburuak irakurtzea izanik, irakurle nekagaitz bihurtu zen. Gaztaroan bururatu zitzaion zerbait gehiago egin beharra zeukala eta ez zuela atzera begira egon behar. Bere bizitzan lortu zuen guztia ekinaren ekinez egin-dako lanari esker erdietsi zuen. Horrez gain, buru-belarri euskara lantzen eta antzerkigintzan aritu zen. Familian eman zituen orduak eragin handia izan zuten

bere bizitzan eta etxeko sukaldeko giroa guztiz onuragarria egin zitzaion kristau eta kultur ibilbidean. Amak ereindako haziak uzta ona eman zuen. Esaera zaharrak dioen bezala: «umearen zentzuna etxean entzuna».

Augustin Zubikarai lagunaren iritziz: «Ama, Karmen Martija, Donostin nekame egon zanean, liburutegi eder eta ugariaren jaube zan etxean egon ei zan eta etxeko andre ikasi baten arduretan. Etxeko andre on arek “Klasikoak” eta abar irakurri eta aztertu eta komenta-



Gaspar aita (ezkerretik bigarrena). Aizkora jokoan

tu eragiten ei eutsazan. Bai eta euskal...
erdal antzerki jaietara eramán eta gero
ango maxiaketa etxean bien artean egin».
(*Arkotxatarrak Euskal Antzerkian*, Do-
nostia, Antzerti, 1993: 4).

Gaztaroan Kantauri Itsasoari Atxukale
plazatxotik so egiten eta kresal giroan
jolasten hezia izan zen, beraz aitor de-
zakegu sorterriko eremu honek, kaiak
eta itsasoak badutela eraginik haren ele-
-edertasunean, adibidez, honelako esal-
dietan: «Hamaikatxo aldiz gogoratu ditut
itxasuntziko eguraldi eder haiek. Eguzki
galdatan, kresal-lanbrutan, haize osasun-
garri haiek». (*Joxe-Maritarrak, Euskal
Antzerki* 1980, 50-51). Itsasoa ez zaio se-
kula ahaztuko, berari atxikia iraungo du
beti eta hura izango da bere bizitzako
irakaslerik hoberena.

LEHEN IKASKETAK

Mutrikuko eskoletan hasi zituen oinarriz-
ko ikasketak eta txikitatik edoski zuen
herriko euskara. Geroago, haurtzaroko
ikasketak abiapuntutzat hartuz, bere ka-
buz jarraitu zuen kultur arloan. Santi
Onaindiari idazten dionaren arabera:
«Nere bizi guztian ikasten ari naizela esan-
go nuke, ortara kontabilidade eta “Tene-
duría de Libros” egiñak ditut eta Cuestión



1924-1925. Zaku-lantegian Mutrikun. Goiko lerroan
ezkerretik bigarrena



Mutriku. Musika banda. Behean eskuinaldean

Soziala ere ango maixu eta nik auke-ratutako liburuak eta korrespondentzia bidez. Ez naiz iñongo ikastegietan aritu nere erriko frantsez monjetan lenengo eta gero San Migelkoetakoetan izan ezik. Ni nerezko ikaslea izan naizela argiago esana legoke». (1983-8-4; *Euskal Literatura*, vi: 84).

Errepublikara garaietan, ogibidez zaku-lantegi batean lan egiten zuen. Horrez gainera, Batzokiko aurrekulari trebea eta antzezle ospetsuaren sona zuen herrian. Hain zu-zen ere, antzerkirako zaletasunak bultzatu

zuen antzerki lanak idaztera: «Ain antzerki onak etziranak ere ba-zirala konturatuaz, nik ere zerbait egin nezakeala eta “Markesaren Alaba” gaia arturik, “Mutriku” izenaz idatzi nuen». (Ibid.: 85).

Eskarmentu honen bidez, etorkizunean arrantzaleen kezka eta gogoetak maisuki azaldu eta taularatuko ditu. Arte Ederren arloan musika eta antzerkia izan ziren dantzarekin batera Atxukalaren bizitzako zutabe nagusiak; itsasoa, kresal giroa, kantua, musika-banda, euskal dantzak, abertzaletasuna (EAJ-ELA), kirola (batez ere futbola), antzerkia eta euskara izan ziren nagusi haren baitan eta euskaldu-non lehen hizkuntzaren aurkako otsoen kontra tinko borrokatu zen. Ondotxo zekien antzerkiaren ildotik bideratu behar zuela euskararen etorkizuna eta bere lanen bitartez, jendeari zenbait gogoeta eginarazi nahi zizkion. Francoren garai goibel haietan txistua eta danbolina jotzen ere ikasi zuen. Baina, batez ere, euskararen alde egin zuen urte askotako ibilbide luze eta lan isilagatik, eskerrik beroenak zor dizkiogu euskaldunok. Zinez, Atxukalaren lan eskerge txalotu be-

harra dago, gure hizkuntzaren maitale sutsu bilakatu baitzen.

IDAZLE HASTAPENAK

Gaztarotik izan zuen idazteko trebetasuna eta bere ametsa idaztea zen, beraz azkar hasi zen kazetaritzan gerraurreko kultur giroan, euskara galzorian ikusten baitzuen. Hemeretzi urte bete ondoren, *El Día*, *Argia* eta *Euzkadi* aldizkarietara bidaltzen hasi zen bere lantxoak, eta gerago *Zeruko Argia*, *Egan*, eta *Agur* aldizkarietan batez ere idazten jarraitu zuen.

Ustekabeko gertaera batek baldintzatu zuen haren ibilbidea kazetaritzan. Santi Onaindiari bidalitako idazki batean irakur daitekeenez, futbol partidu batek bideratu zuen Atxukale lehen aldiz kazetari lanetara: «Naiz eta ni euskeraz idazten oitua izan ez, Mutrikuko berri-emailleak guk Elgoibar'tarrekin izan genuen ostikoketan irabazi genuen arren, aiek geiago zirala zabaldu zuen eta ura izan zan nere lenengo aukera «Kirol-Zale» izenordea arturik *El Día*-ra idazteko». (*Euskal Literatura* vol. vi: 85).



Mutriku 193?. ELA-STV banderaren bedeinkapena. Behean erdigunean



Atxukale futbolari Mutrikuko taldean



Gerrak baldintzatua

1942. Atxulake plaza. Mutriku.
Lehen semetxoarekin

GERRATEA (1936-1939)

Atxukalaren gaztaroa, bere adineko beste hainbat euskal gazterena bezalatsu, anaiarteko gudak baldintzatu zuen. Franco jeneralak bere matxinoekin 1936ko uztailaren 18an gerra sortu zuenean, J.A. Arkotxak 25 urte zituen eta bere herriko portutik jende andana handi bati itsasoz ihes egiteko laguntza eman zion. Garai hartan asaldatuta zebilen jendea, batez ere itsasertzeko kaietan, eta ikaraz agertzen ziren mutrikuar gehienak. Hurrengo urteko apirilaren 26an Gernikako bonbardaketa ikusi ondoren, atsekabe

handiz Hegoaldea utzi eta atzerrira joatea erabaki zuen hilko ez bazuten, eta Bidasoaz bestaldera ihes egin zuen. Lapurdiko Ziburu herri politean bederatziz hilabete eman zituen senide batzuen etxean.

Maurice Ravel, musikagile ospetsuaren jaioterri hau, beti izan da garai zailetan, eta gudaz guda, euskal iheslariantzat babesleku abegikor eta segurua; nahiz eta Iparraldean katoliko gehienek ere ez zuten ulertzen nola euskaldunak hain kristau sutsuak izanik, Francoren aurka eta Espainiako Errepublikaren alde ja-

rri ziren. Zoritxarrez, euskaldunen aber-
tzaletasunak frantsesen gaitzespena baino
ez zuen jaso (salbuespen batzuk izan ezik)
eta Iparraldeko komunikabide, maisu eta
apaiz askok Francoren «gurutzada» ba-
bestu zuten. Beraz, hango bizimodua oso
aldapa gora egiten zitzaion, baina hantxe
jarraitu behar nola edo hala.

Bederatzi hilabeteko erbestealdi goibel
honen ostean, erabaki sendo eta arriskutsu
bat hartzeko ausardia izan zuen. Eta muga
zeharkatu ondoren 1938ko udaberrian,
gudan parte hartu zuen bi urtez, etsaien
esku erori arte. Bereak eta bost jasan behar
izan zituen: desterrua, espetxeak, gosetea
eta, batez ere, heriotza zigorraren larri-
tasuna, Don Benito (Badajoz), Donostia
(hamasei hilabete Hondarretako kartzelan)
etab. Epaitua eta heriotzara zigortua izan
zen arren, azken momentuko indultua-
ri esker askatasuna erdietsi eta, epe luze
baten ondoren, etxeratu zen. Etxera itzul-
tzeko baimena lortu arte ez zuen onik izan,
eta ez zuen inoiz etsi, harik eta berriz ere
1941ean Mutrikura bizitzera etorri zen
arte. Zorionez, bere bizitzako unerik zaile-
nak amaitu ziren.



Serafina eta Jose Antonio Mutrikuko jaietan



Arkotxa-Ituarte familia



Ondarroa 1962

Zorigaiztoko gudaren ondorio latzak igaro ondoren, 1941eko martxoaren 29an ezkondu ziren Mutrikun J.A. Arkotxa eta Serafina Ituarte, eta egun zorionsu hori gogoangarria izan zen beti euren egutegian. Biziki maite izan zuen bere familia: emaztea eta hiru seme-alabak. Bestalde, pare bat urtetan (1941-1943) *Cortazar* itsasontzian arrantzara joaten zen makinista gisa, bere aitaren ogibideari jarraituz. Baina itsasoaren laztasuna eta emaitzen urritasuna ikusirik, familiarekin Ondarroara bizitzera joatea erabaki zuten. Lan berri bati esker, bere

bizimodua goitik behera alda zezakeen aukera eskuetara zetorkiola ikusi eta onartu zuen.

ONDARROAN 41 URTE

Kontabilitateburu hasi zen lanean Ondarroan 1943an, bere kasa ikasi zuen ofizioan. Itsas enpresa bitan (Pesquera Arrate-Antigua-n, eta Pesquera Kortazar-Asterrika-n) lehen hamarraldia eman ondoren, Conservas Ortiz arrain fabrika aritu zen lanean. Jaioterrian bezalatsu bizi izan zen hemen ere, itsasoari begira sarri, eta ber-

ton 41 urte eman zituen bulegari lanetan 1984ra arte. Zinez, egonaldi luze hori ez zen izan ahuntzaren gauerdiko eztula. Juan San Martin euskaltzainaren iritziz: «Urte honetan Erreteriarra bizitzera aldatu ziren eta handik, 1995ean, Donostia-ra». (*Euskera* XLI (2. aldia): 426).

Atxukale Ondarroara heldu zenean, euskara gutxietsita eta galarazita zegoen. Garai hartan ez zen inolako aukerarik euskara eskoletan ikasteko eta askatasun gabeko giro hura itogarria zen. Jendea bildu ahal izateko oztopoak zeuden agintarien aldetik, baina J.A. Arkotxak jende talde handian lan egin zuen. Gipuzkoar zaldun zintzo honek euskara zegoen leizeitik ateratzen laguntzeko, eskua luzatu zien auzoko bizkaitar lagunei, kultur susper-tzaile eta kolaboratzaile bikain bilakatuz. Beraz, aurrerantzean, ama zaharraren hizkuntza suspertu nahirik, Atxukaleri ego-kitu zitzaion lan horren ardura hartzea eta Ondarroako herri kantua eta antzerki saioetan buru-belarri sartu zen, baita arazo sozialetan ere. Bere herrian aspaldi piztutako euskal garra areagotzen joan zitzaion.



1945 Ondarroa. Senar-emazteak eta bi seme-alabak

Ahalegin horren ondorioz, sekulako lana burutu zuen J.A. Arkotxak Bizkaiko herri honetako Kresala elkartean, bera izan baitzen sustatzailerik onenetarikoa A. Zubikarai «lemazaina»ren ondoan. Zenbat ordu eder eman zuten elkarlanean, hainbat lagunek. Hona hemen batzuk: Agustin Zubikarai, Imanol Oruemazaga, Jose Markuerkiaga, Jose Mari Etxaburu *Kamiñazpi*, Txomin Ituarte, Amaia Aulestia, Juan Arantzamendi, etab.; eta lan honen ondorioz, adiskidetasun sendoa lortu zuen lagun hauekin. Kresala elkarte euskararen bultzaleku bilakatu zen, eta Ama-Lurra-ren hizkuntza bazkide guztien lokarri.



Jaunaren bidetan. Ondarroa 1958. Atxukale eskuinaldean



Ondarroa. Zaharren omenaldia. Jose Amadea alkatearekin



Ondarroa. Marmitako sariketan antolatzaile

Hirurogeigarren hamarkadan giro berri bat ari zen ernatzen Euskal Herriko gazteen artean eta giro berezi horretan irmoki esku hartu zuen. Ondarroako herritarrentzat eta euskaldun guztientzat, garrantzi handikoa izan zen 1957tik 1967ra arteko hamarkada. Orduko agintariek galarazten zuten edozein bilera egitea euren baimenik gabe, eta herrian zeuden guardia zibilek ez zituzten Kresala elkarteko partaideak batere begiko. Urte luze eta gogorak jasan behar izan zituzten, baina Atxukale ez zen zeharo lur jota gelditu eta aktore berezi gisa jarraitu zuen, ez baitzuen inoiz amore eman. Hamaika ordu, hamaika txango, hamaika oztopo, hamaika salbuespen egoera, hamaika etxe miaketa, hamaika zartako eta espetxeratzetxe jasan behar izan zituzten! Ondarroan zoriontsu sentitu zen, baina adiskide be-



A. Zubikarai eta J. Markuerkiaga

rriak eginagatik, ez zuen inolaz ere eten Mutrikuko lagunekin zuen lotura eta mutrikuartzat jo zuen beti bere burua.

Urte zail haietan aparteko babesa eman eta langintza eskertu ezina burutu zuen Atxukalek Kresala elkarte; eskarmen-tu handiaz baliatuz, olatuei brankaz aurre egiten ikasi zuen gaztarotik, arrantzale on bati dagokion bezala. Euskal Herriaren egoera ilunaz kezkatutik, Ondarroako ikastola berriaren eraikuntzan eta antolaketan ere parte hartu zuen. Eta, azkenik, bere eguneroko bizitzan eta betebeharretan gehien nabaritzen zen bertutea lagun hurkoarekiko begirunea zen. Bizitzak irakatsi zion gizonki jokatzen inongo unibertsitatara joan gabe.



Ondarroa. 1958 Kamiñazpi eta Arkotxa anaiak

NORTASUN SENTIBERA

Barne-bizitza aberatseko gizakia zen: atsegina, umoretsua, baketsua. Bakezalea zen, inor bazen. Apaltasun abegikorra zuen, irribarre goxoarekin batera eta ez zitzaion nabaritzen zakarraldi erasokorrik. Guztiz sentibera ere bazen eta inori kalte ez egiteko arduratzen zen. Bazuen



Ondarroa. «Arrantzale eguna». «Andramarixetan» umoretsu



1968 Loiola. Lehen lerroan erdialdean

aldi berean, gauzak egokiro azaltzeko trebetasuna eta hitz egokienak aukeratzeko abilezia. Jarrera irekia zuen eta gizaki xaloa zen, tolesturarik gabea. Ho-



1963 Eibar. Semearen ikasketen bukaera



I.Berriatua (O.F.M.) euskaltzainarekin

rrez gainera, ez zen ohore bila ibiltzen diren horietakoa. Ez zen handinahikoa, ezta kanpoeder ere.

Bestalde, inori ez zion aurpegi txarrik erakutsiko eta harrera atseginkorra egiten zien lantegiko (Ortiz arrain kontserba fabrika) eta Kresala elkarteko partaideei. Lagun hurkoa laguntzeko prest egoten zen beti. Halaber, kristau zintzoa eta Elizaren babesle sutsua zen. Horrez gainera, politika arloan euskaltzale suharr eta abertzale fin agertzen zen (Ama Euskal Herriaren sustraiei irmo atxikita dituen euskaldun gisa), baina baita benetako demokrata, pertsona guztien eskubideak errespetatzen zekiena ere.

Haren bizitza ondo ulertzeko badira lau zutabe garrantzitsu: euskaltzaletasuna,

abertzaletasuna, antzerkia eta kazetari-tza. Lau hitz horiekin laburbil ditzakegu J.A. Arkotxaren pentsaera eta sentipenak. Errotik abertzalea izan zen bizitza guztian, eta sabindar «euskaldun fededun» goiburua bere bihotzean eraman zuen beti. Euskara eta kristau fedea, Euskal Herria eta Jainkoa, bizitza osorako uztartu zituen gaztarotik bere baitan. Ez zen iraultzailea, baina bai ordea sinesmenari, herriari eta euskarari lotua eta leiala.

KRESALA ELKARTEAN

Beti zegoen lanerako prest Kresala elkar-tean, gazteak hezteko eta, antzerki saioak prestatu ondoren, inoren lanak taularatzeko Euskal Herriko hiri eta herri askotan. Antzerkia izan zen haren adierazpide maitatuena eta komunikazio tresna berezia, eta haren bidez Ondarroako gazteekin lan eginez, antzerkigintza eta jendearen artean nolabaiteko lotura sortu zuen. Honako herri hauek izan ziren antzerki saioen lekuko: Bilbo (Arriaga antzokia), Donostia (Victoria Eugenia antzokia), Gasteiz (Principal antzokia); Eibar, Tolosa, Durango, Bermeo, Arrasate, Zarautz, On-

darroa, Azpeitia, Bergara, Elgoibar, Ordizia, Mutriku, Markina, Galdakao, Hernani, Ermua, Oñati, Urretxu, Zumaia, Hondarribia, Elgoibar, Pasaia, Beasain, Legazpi, Getaria, Soraluze etab. Ekin-tzaile aspergaitza zen gure «Kitolis»; inolaz ere ez atsedenaren besoetan lokartua edo ur gaineke bitsetan geratzen diren horietakoa. Agustin Zubikarairen iritziz: «Bera iñoren antzerkiak antzeztuten alegindu zan eta ez eban zoririk euki bererik antzeztuteko. Iñori ospea emoten alegindu, bereak isilik gordeta». (*Euskaldunon Egunkaria*. 1996-3-19: 29). Orduko egunkari eta aldizkariaren iritziz, arrakasta itzela izan zuten alderdi guztietan.



Ondarroa. Gazteen hezkuntzan



Antzerkiaz maitemindua

1972 *Mariñelak* Ordizian

ANTZERKI IDAZLE

Antzerkia izan zen bere begietako ninia eta erabat maitemindu zen. Aldi berean antzerkia zen harentzat gazteak eskolatzeko eta herria suspertzeko tresnarik egokiena. Ondo baino hobeto azaltzen ditu antzerkiari ematen zizkion babesa eta garrantzia. Euskal gizartea zeharo aldatzen ari zen urte haietan, Euskal Herriak aurrera egingo bazuen, euskarekin elkarturik egin beharko zuen. Beraz, gizarte berri honekin hartutako betebeharrari erantzuteko, antzerkiaz baliatu zen: «Alakoren baten errietako gazte eta zaarrak ere konturatuko al dira antzerkia degula euskera eta euskal

izatea adierazten emateko gairik goenetakoa».

Halaber, literatur sortzaile zen aldetik, era desberdinetako antzerkiak idatzi zituen irakurle ezberdinei begiratzuz: haurrentzat eginiko antzerkitxoak eta obra luze eta sarituak. Beraz, esan beharrik ez dago, haren lanen artean, ez dutela guztiek maila bera, ez edukiaren eta ez formaren aldetik. Hasierakoak, adibidez, barre eginarazteko helburua besterik ez zuten. Orrialdeen kopuru aldetik ere, oso ezberdinak dira; adibidez: *Patxikilo eta Pantxika* lanak 5 orrialde baino ez ditu, *San Piñastei eguna*-k 12; eta *Joxe-Maritarrak* lanak, ordea, 77. Horrez

gain, idatzi ez ezik, sariketetara ere aurkeztu zituen banaka batzuk eta sarituak izan ziren.

J.A. Arkotxari eguneroko bizitzako egin-beharrek eta euskararen zabalkundeak, asti gehiegi lapurtu zioten literatur lan zabalagoa burutzeko, baina hala ere, hona hemen S. Onaindia eta Juan San Martin euskaltzainen liburuetatik jasotako haren lanen zerrenda luze bat: 1) *Arno-pe* (1949; hiru ekitaldiko antzerkia). 2) *Nork nori ziria sartu?* (1949an Azpeitian estreinatutako bakarriketa). 3) *San Piñastei eguna* (1951, ekitaldi bateko antzerkia; urtero Mutrikun ospatzen den jaialdia). 4) *Antzerki ikusketa berezia* (1954an Zarautzen lehen saria jasotako ekintza bakarreko lana eta 1956an idatzia). 5) *Arantzazuko Anai Patxi* (1956; hiru ekitaldikoa). 6) *Gabon Gabontzeta* (1956; ekitaldi bakarreko lan honek aipamen berezia lortu zuen Mutrikun eta *Egan* aldizkarian argitaratu zuten 1957an: 375-411). 7) *Leniz'ko alaba*, 1959; bi ekitaldiko lan saritua, Loramendi olerkariaren omenez Bedoñan (Gipuzkoa) ospatu ziren jaietan). 8) *Brokel Jauna* (1964; Iturrinoren «Markesaren alaba»



Haren lan baten azala

bertsoetan oinarritutako lana). 9) *Josan* (1966; maitasun gaietan oinarritutako hiru ekitaldiko antzerkia). 10) *Porteraren semea* (1967; arazo sozialei buruz idatzitako hiru ekitaldiko lana). 11) *Naximentu Berria* (1969; gazteriari zuzendutako ekitaldi bakarreko antzerkia). 12) *Itxas-lanbrotan* (1970; hiru ekitaldiko lana). 13) *Joxe-Maritarrak* (hiru ekitaldiko antzerkia Bilbon Toribio Alzaga Saria irabazi zuena, *Euskal Antzerti*, Euskaltzaindia, Bizkaiko Aurrezki Kutxa 1980: 7-77). 14) *Kresal txipristiñak* (1982, arrantzaleen bizimoduan oinarritutako hiru ekitaldiko antzerkia). 15) *Patxikilo eta*

Pantxika (*Banaka... Biñaka*, Ondarroa, Ondarroako Kultur Etxea, 1985: 75-80). Horrez gain La Voz de Guipúzcoa irratiari lan egiten zuen, bere irratsaioetan Atxukale izengoitia erabiliz. Halaber, 1961ean C.A.T. (Centro de Atracción y Turismo) erakundeak antolaturiko lehiaketan haren *Arrai saltzalleak* eta *Egiata arria* gidoiek, lehen saria erdietsi zuten. Isil-isilik lanean ari zen antzerkigile oparoa izan genuen. Ez zitzaion zail egiten honelako eginbeharrak idazteko beta aurkitzea, baina haren lehen helburua antzerki lanak idaztea izaten zen. Irakurleak izango du zerrenda honetan aldi baterako bere irakur gogoia non asetu!

IDAZKERA LANDUA ETA HERRIKOIA

Euskararen aldetik idazle hasiberriaren zantzuak nabaritzen zaizkio, batez ere lehen liburuetan, baina aldi berean, euskal sustrai jatorreko idazle gisa agertzen zaigu, garbizaletasuna nabarmen erakutsiz. Euskal senez idazten zuen, joskera ulerterraza erabiliz. Hizkuntza aldetik, gipuzkeraz jarduten zuen beti lagun ar-

tean, bere herriko euskara bizia eredu-tzat hartuz. Bestalde, idazkera landua eta era berean herrikoia erabiliz, jende xehearengana hurbiltzeko ahalmen berezia erakusten du, herrikoikerietan erori gabe.

Halaber, bere antzerkigintzan ez zuen maite amets hutsik eta kezkatu azaltzen ditu gizarte eta bere aberriarekiko zituen konpromisoak. Euskal Herriko istorioak eta gertakizun historikoak era tradizionalean deskribatzen ditu, inolako teknika berrien zantzurik gabe. Adibidez, *Leniz'ko alaba* antzerkian, Erdi Aroko jauregi-tako jauntxoek eta oinaztar-ganboatarren borroketan oihartzunak entzuten dira; *Joxe-Maritarrak* liburuan, ordea, XIX. mendeko eta batez ere 1813. urteko Donostiako gerrari buruzko gertakizunak zoragarri kontatzen dizkigu. Zinez, erraz eta argi erabiltzen ditu gaiak. Bestalde, pertsonaien arteko elkarrizketa umoretsu, bizi eta jatorrak maisuki sorrarazten ditu, antzezleak taula gainean egoki erabiliz eta *hika* aditz formaz baliatuz. Perpausak elkartzeko darabilen modua ere, guztiz egokia eta ulerterraza da. Azkenik, labur-

bilduz haren lana, esan daiteke, inolako beldurrik gabe, gutxi direla euskal idazleen artean, antzerki esparruan behintzat, J. A. Arkotxa jaunak eskaini zuen maila eman dutenak.

Horrez gainera, euskal herri literaturako mota ezberdinetako baliabideak darabil-tza: esaera zaharrak («Zozoak beleari, ipurbeltz», «Jokoa ez da errenta»); ber-tsoak («Josan»: 8 orr.; «San Piñastei egu-na»: 10 orr.). Baita ere, bere antzezla-netan herri abestiak erruz tartekatzen ditu. Adibidez: *Gabon-gabontzeta* («Haur-txo txikia sehaskan dago», «Olentzero», «Hator, hator mutil etxera», «Alaitu ta poztu gaitezen...»); *Arantzazuko anai Pa-txi* («Zuk zer dezu Arantzazu», «Erruki zaitez Jauna», «Agur Zeruen ederta-suna»); *San Piñastei eguna* («Jesus gure Jaun maite», «Ai zure begi ederrak»); *Ar-nope* («Jesu, dulcis memoria», «Jaun-goiko dontsua», «Kontxesi», «O Euskal-Herri eder maitea!», «Itsasoan laino dago»); *Itsas-lanbrotan* («Euskaldun jaio nintzan»); *Naximentu Berria* («Mesias sarritan agindu zana»); *Kresal Txipristi-nak* («Maitasun bidezko pakea»). Azkenik,



Ondarroa. Jaunaren bidetan. «San Pedro»

aitor dezagun haren antzezlan gehienak nekazaritza eta, batez ere, itsastar giroan kokatuta daudela.

ANTZEZLE, IRAKASLE, ABESLARI

Antzerkia bakarrik ez zuen landu Atxukalek, eta beste alderdi bat aipatu gabe ezin dezakegu bukatutzat eman haren lan oparoa. Bazuen bai, gure mutrikuarrek behar bezainbat azpimarratzen ez den beste ezaugarri bat. Kresala elkartearen agirietan agertzen denaren arabera Atxukaleren partaidetzaren historiak hari luzea dakarkigu burura: 1957an Eguberri giroko eta ekitaldi bakarreko *Seaska-inguruan* musikadun sei irudi antzeztu zituzten lehengo aldiz Ondarroan. Irakas-

le gisa Atxukale agertzen zaigu, ondarroar gazteei aholku onak emanez, antzerkirako bideak irekiz eta eroapen handiko maisu moduan.

Augustin Zubikaraik 1958an prestatu zuen *Jaunaren bidetan*, Kristoren nekaldiaren musikadun irudietan, J.A. Arko txak San Pedro Apostoluaren pertsonaia antzeztu zuen. 1961ean Txomin Agirrerren *Kresala* eleberrian oinarritutako A. Zubikarairen eta Gregorio Solabarrrieta musikagilearen *Kresaletan* taularatu zuten Ondarroan, non J.A. Arko txak Kitolis pertsonaiaren nahigabeak



Ondarroa. *Kresaletan*. «Kitolis» zaharra



Ondarroa. Haurren heziketan

eta kezkak maisuki azaldu zituen, negar malko mardulak entzule askoren begietatik isuriaraziz. Beste batzuk, berriz, begiak zabal-zabalik geratzen ziren Kitolis errukarriari begira.

1962. eta 1963. urteetan, Kresala abesbatzak F. C. Th. Dubois (1837-1924) frantziar musikagilearen *Kristoren zazpi hitzak* (1867) latinez abestu zuen, eta baita Bizkaiko Abesbatzen Lehiaketan lehen saria jaso ere; bi ekitaldiotan gure mutrikuarrak sutuki parte hartu zuen. 1964an Tx. Agirrerren jaiotzaren lehen mendeurrena zela-eta ere, herriko haurrek eskaini zioten antzerkiaren irakasle moduan bera agertzen zaigu.

Halaber, 1965. urtean, A. Zubikarainen hitzekin eta Jose Mari Altunaren musika-rekin osatutako *Mariñelak* euskal zartzelako aita zaharra pertsonaiaren lana, zoragarriro antzeztu zuen Atxukalek. Eta azkenik, 1973an *Arrantzaleak Gaur*: film, antzerki eta abestiz osaturiko obra luzeak, euskal arrantzaleek Kanaria uharreetan jasaten zituzten arazo sozio-ekonomikoen azalpen zehatz eta sentikorra antzeztu zuten Ondarroan; obra honetan



1966 Zilarrezko ezteguak

itsasontziko lemazainaren eginkizuna ere J.A. Arkotxak bete zuen.

Beraz, ez da harritzekoa bere partaideek honela goraipatzea euskal aldizkarietan haren lan eskerga: «Ibillaldi guzti onetan Atxukale jaunak ez dau utsik egin eta erriz erri ibilli geranean Ondarru gure erriaren izena goratu edo oinpe-



ratu dogun edo ez, gure lanak ikusi da-bezenak esango dabe. Naiz eta jaiotzaz mutrikuarra, gure Ondarrun kultura ar-loan ainbat eta ainbat lan Atxukalek egin duanik nork ukatu? Eta duban, bere pol-tzikurako ezelako onura barik lana egin be. Geiago oraindik. Antzerki egillea be ba dugu Atxukale jauna. Antzerki sari-tuak be ba ditu. Kresalako batzordeak Atxukaleren antzerkiren bat antzeztutzea erabaki eban, baiña asmo eta erabaki onek asmo utsetan gelditu dira. Alan da guzti be, Atxukale jaunak antzezlari la-nean, jo ta ke jardun izan dau, eta orain be jo ta ke jarraitzen dau. Auxe dogu Atxukale». (A. Zubikarai, *Zeruko Argia*, 1975, 648 zk.:11).

EUSKARA BATUAREN ARAZOA

Euskaltzaindia oso garrantzitsua izan zen Atxukaleren bizitzan eta erakunde honen arauak begirune handiz jasotzen zituen. 1965ean erakunde honek euskaltzain ur-gazle izendatu zuen Atxukale. 1968an urriaren 3tik 5era Arantzazuko Santu-tegian egin zuten bilera goraipatu har-

tan, Gipuzkoako probintzia salbuespen egoeran zegoen. Urte zailak izan ziren batzarrak debekatuta zeudelako. Hala ere, J.A. Arkotxa han agertu zen euskal-tzain gisa euskararen etorkizuna jokoan baitzegoen. Hemen dugu bilera hartako argazki historikoa, non gure mutrikuarra, Julita Berrojalbiz bizkaitar anderearen eta Antonio Labaien gipuzkoarraren er-dian irribarretsu agertzen den. Ez zion entzungor egin Euskaltzaindiaren deia-ri eta aro berri baten sorreraren lekuko izan zen.

Euskara euskalki eta azpieuskalkietan za-titurik zegoen kinka larrian, eta ezinbes-tekoa zen ama hizkuntzaren batasuna. Baina, aldi berean, baldintzazko bata-sun honek ezin zuen hil euskalkien abe-rastasuna. Honelako bilera eztabaida-txoetan gertatzen ohi den bezala, egoera iskanbilatsu eta katramilatsua sortu zen euskaldunen artean. Hegoaldeko euskal-tzale askok mugarik gabeko ezinikusia zioten «h» letra txikiari: istilu guztien iturburu, kedar beltzez jantzitako kebi-de ziztrin eta euskararen gotorlekua zen baserria suntsitzen zuen tximista. Letra



Arantzazu 1968. Euskaltzaindia

honen arazoa izan zen Arantzazuko bilerak liskartsu hartan eztabaida guztien sorrera.

Ez zen batere erraza Euskaltzaindiari leporatu zitzaion zama astuna, hots, euskararen normalkuntza. Urteak joan ahala urak poliki-poliki baretzen joan ziren eta egun K. Mitxelena, L. Villasante O.F.M., Federico Krutwig, Juan San Martín, Gabriel Aresti, Jose Luis Álvarez Enpantza

Txillardegi, Imanol Berriatua O.F.M., Jose M.^a Satrustegi, Juan M.^a Lekuona, M. Zarate, eta beste askori zor diegu neurri handi batean euskara batua. Euskara batuaren arazo hau ez dago oraindik bukatuta baina, bai, ondo bideratuta.

Atxukale ez zen Euskaltzaindiaren arauen, euskara batuaren eta H letraren aurkakoa. Ikastolen etorkizuna, euskal idazle gazteen premiak, euskal liburuaren ekoiz-



Mutriku 1976. Azken aureskua alaba gaztearen ezkontzan



Mutriku 1991. Urrezko ezteguak

penak eta gazteriaren batasun egarria kontuan edukita, bidezkoa iruditu zitzaien euskara batuari oztoporik ez ipintzea. Are gehiago, Juan San Martinek dioen bezala, bere herriko gipuzkera goxo eta samurretik euskara baturako bidea jorratu zuen: «Zenbait urtez La Voz de Guipúzcoa irratian, Atxukale izenean aritu zenean, urrats bikainak eman zituen euskararen alde. Mutrikuko hizkera herrikoi bizi-bizia zuen elkarrizketen oinarri ...*Tan tarran...tapatatan*, 1971an idatzitakoa, 1981an euskara ba-



Mutriku 1991. Urrezko ezteguak



Ondarroa 1992. *Kesaletan omenaldia*

tuan jarri zuen». (*Euskera* 1996, 1-2: 426). Eta lan honi izena ere aldatu zion *Joxe-Maritarrak* erabiliz.

AZKEN TXANPA

Bere bizitzako udazkenaldian, garai bateko kemena galdu zuenean, Errenterian eta geroago Donostian aurkitu zuen bizilekua. Osasunez pattal samar zebilen,

baina bere burua ahulduta ikusi zuen arren, tinko jarraitu zion hiru zutabe gainean eraikitako betiko bideari: apaltasunari, zintzotasunari eta duintasunari. Ondarroako itsasertzean azken aldiz elkartu ginenean, ahoz eta lumaz trebea izan zen Kitolis zaharrak, berea izan zuen hitz-jarioa galdu gabe irribarretsu zirauen oraindik. Zinez, hiltun goxo eta oparoa izan zen.



Senar-emazteak. Bizitzaren udazkenean

Ondo merezitako omenaldi bat baino gehiago egin zioten Atxukaleri azkenengo urteetan. Besteak beste, bere jaioterrian. Eta une honetan Atxukalerekin batera, Josu Arkotxa bere anaia ere aipatu beharrean gaude, Azpeitiko Antzerki Topaketetan eta Mutrikuko Udalean biak izan baitziren omenduak 1994an. Ondarroako herriak ere omenaldi hunkigarria eskaini zion 1992an *Kresaletan* azkenekoz antzeztuz. Gu ere harenganako zorra nolabait ordaintzera gatoz, beraz liburutxo hau izan bekio zor zaion gomutagarriarik onena. Halaber, aitor dezagun J.A. Arkotxari eskain dakioken omenaldirik hobe-



Arkotxa anaien lanak

rena, bere lan guztien argitalpen on bat plazaratzea litzatekeela, Atxukalek burututako lana ez baita baliogabea. Etorkizunak bakoitza bere lekuan jartzen duela, esan ohi da. Beraz, helduko zaio noizbait Atxukaleri ere bere ohorezko unea. Liburutxo hau helburu hori lortzeko lehen urrats apal bat izan dadila.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaratik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Arkotxa familiari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2009ko ekaina
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Avd. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2966-3 (Lan osoarena) 978-84-457-2968-7
L.G.:	BI - 1701-09



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística